

Gipuzkoak bikoiztu egin zuen BPGaren aldean I+Gn egindako gastuaren Europako batezbestekoa


2007. urtean, BPGarekiko gastua %2,05ekoa izan zen Gipuzkoan, %1,52koa Bizkaian eta %1,28koa Araban

Eustaten datuen arabera, Gipuzkoak 2007. urtean egindako ahalegina I+Gko barne-gastuaren alderaketan islatzen da, BPGaren ehuneko moduan; lurralde horrek %2,05eko gastua izan zuen, hau da, lehen aldiz gainditu zuen EB-27ko Europako batezbestekoa (%1,83). Adierazle hori %1,52koa izan zen Bizkaian eta Araban %1,28koa. Nolanahi ere, hiru lurraldeek gainditu zuten Espainiako batezbestekoa (%1,27).

2007. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan guztira 1.090 milioi euro inbertitu ziren (BPGren %1,65) Ikerketa Zientifikoaren eta Garapen Teknologikoaren jardueretan (I+G). Gastu horretatik, Bizkaiak 503 milioi euro inbertitu zituen (%46), Gipuzkoak 447 (%41) eta Arabak 140 (%13).

I+Gko barne-gastua %20 gehitu zen aurreko urtearen aldean, bai Euskal Autonomia Erkidego osoan baita Bizkaian ere. Gipuzkoak batezbesteko hori gainditu zuen, %23arekin; Arabako gastua, aldiz, %12 gehitu zen.


1. grafikoa. I+Gko barne-gastua, BPGari dagokionez (%)



Iturria: Eustat eta Eurostat

Kapital-gastua bakarrik kontuan hartuta (lur, eraikin, ekipo eta tresnetan egindako inbertsioak) **guztira 212 milioi euro inbertitu dira; beraz, aurreko urtean baino %57 gehiago, batez beste.** Dena den, lurralde historikoen artean banaketa ezberdina eman da: Gipuzkoan %78 gehitu zen, Bizkaian %46 eta Araban %28.

2. grafikoa. I+Gn egindako barne-gastua, egikaritze-sektorearen arabera (%).



Iturria: Eustat

Egikaritze-sektoreari dagokionez, lurralde historiko bakoitzak berezitasun ezberdinak izan zituen. Araban herri administrazioaren sektorean egindako gastua nabarmendu behar da berriz, Arabako gastu osoaren %7,2 izan baitzen; gastu hori administrazioaren menpeko erakunde batzuen ondorioz eman zen. Gastua 2006. urtearen aldean %40 gehitu zen. Enpresen sektoreak %79,1eko gastua izan zuen eta unibertsitatearen sektoreak, aldiz, %13,7koa.

Bizkaian, 2007. urte horretan, administrazioaren eta enpresen sektorearen gastuak %22 gehitu ziren (2006. urtearekin alderatuta). Unibertsitate sektoreari dagokionez pisu gehien izan zuen lurralde historikoa zen oraindik (Bizkaiko guztirakoaren %18,8), batez ere Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Fakultateak Leioako campusean daudelako.

Gipuzkoan, gastu erlatibo txikiena izan zuen sektorea administrazioarena izan zen (Gipuzkoako gastu osoaren %0,9); baina enpresen sektorea nabarmentzen da, enpresen egitura zehatza delako, zentro teknologiko gehiago dagoelako eta gastua %26an gehitu duelako. Unibertsitatearen sektoreak fakultate tekniko ugari ditu, eta guztira I+Grako baliabideen %11,7 erabili du.

Hiru lurralde historikoetan, ingeniariaritz eta teknologia sektorearen **diziplina zientifikoan** eman ziren berriz gastu handiena eta langile kopuru handiena. Dena den, lurralde bakoitzak gastu horretarako gordetzen zuen ehunekoa ezberdina izan zen: gasturik handiena Gipuzkoak egin zuen (%79) gero Arabak (%74) eta azkenik gastu txikiena Bizkaia egin zuen (%66).

1. taula: I+Gko adierazleak lurralde-eremuaren arabera. 2007. urtea

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskal AE	Espainia	Europar Batasuna
	2007	2007	2007	2007	2007	2007
I + G GASTUAK (%)						
BPGaren aldean	1.28	1.52	2.05	1.65	1.27	1.83
I + G GASTUAK (%)						
FINANTZAKETAREN ARABERA						
Enpresak	66.4	56.2	59.7	58.9	45.5	54.5
Administrazioa	31.8	40.0	36.6	37.6	43.7	34.2
Bestelako iturriak	0.1	0.2	0.5	0.3	3.8	2.3
Atzerria	1.7	3.7	3.2	3.2	7.0	9.0
I + Gko PERTSONALA (DOB) *						
Pertsonala guztira	2.038	6.519	5.879	14.435	201.109	2.237.606
Ikertzaileak	1.066	4.481	3.674	9.220	122.625	1.349.808

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzatza.

Iturria: Eustat, INE eta Eurostat

Emakumeek I+Gn izan duten **partaidetzari** dagokionez, Gipuzkoako emakume guztien %30ak, Arabako %33ak eta Bizkaiko %36ak parte hartu du.

Enpresen **finantzaketa** (%59), ikerketarako baliabide pribatuei dagokienez, garrantzitsua izan zen hiru lurralde historikoetan eta ondorioz hauek Estatuko (%45,5) eta Europako (%54,5) batez bestekoa gainditu zuten.

Enpresen sektoreko I+Gko gastuaren %32 enpresa txikietan erabili zen

Enpresen sektoreko I+G gastuaren %32, guztira 50 langile baino gutxiagoko enpresek egin zuten. Araban %40koa izan zen gastu hori eta Bizkaian soilik %30ekoa; Gipuzkoak (%32) Euskal Autonomia Erkidegoko batezbestekoa izan zuen.

Jarduera nagusitzat ikerketa duten enpresek, enpresen sektoreko I+Gko gastuaren %41 erabili zuten

Jarduera nagusitzat I+Gko zerbitzuak dituzten enpresek 367 milioi eurotik gorako I+Gko barne-gastua egin zuten (enpresen I+Gko gastuaren %41). Gastua honela banatu zen lurraldeen artean: Gipuzkoan gastuaren %52, Bizkaian %37 eta Araban %11.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Susana Rabuñal Mol

Tel.: +34-945-01 75 48 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp